

UDAL ARTXIBOAK GIPUZKOAN. ELKARREKINTZARAKO ZENBAIT EKARPEN.

José Antonio Rodríguez Ranz

Andoain Udal-Artxiboko Arduraduna

Udal Artxiboen arduradun askorentzat txosten honen edukinek ez dute gauza guztiz berririk suposatzen, behin baino gehiagotan elkarrizketa-gai izan bai dituzte. Txosten honen helburua hauxe litzateke: gure elkarrizketa arruntetan aipatu ditugun asmo, ideia, eta iniziatiba horiek -Eusko Ikaskuntzaren Kongreso honen bidez-jendaurrean azaltzea, lanerako oinarri eta gure udal Artxiboen funtzionamendurako dinamika koordinatu berri baten abiapuntu izan daitezen.

Dudarik gabe, Udal Artxiboen arazoaren behinbetiko soluzioak aurkitzea hortarako eskumena eta obligazioa duten erakundeei dagokie. Ez dirudi, ordea, soluzio horiek epe motzean hezurmamituko direnik, berehala ez bada ere, luzeegi baino lehen konponbideetan murgildu ahal izango bagenu, ez litzateke gutxi. Hori horrela, derrigorrezkoa deritzot, berehala, elkarlanean oinarrituriko dinamika gihartzea, gure Artxiboetan inola ere gerorako utzi ezin diren arazo larriak guztion artean aztertu eta konponbidean jar ditzagun.

Proposamen honen edukinak azaldu aurretik, labur-labur bada ere, azter ditzagun Guipuzkoako Udal Artxiboen arazo garrantzitsuenak.

Nere ustez, gure Artxiboen arazo larriena, Artxibo kontzeptuan datza, Udaletako agintariak Artxiboaren izaera eta benetako funtsei buruzko kontzientzirik ez izatean, hain zuzen ere. (Baieztapen hau gehiengoari dagokio, esan ere esan behar bait da salbuespenak badaudela, eta hala aitortu behar da). Korporazioen ikuspegitik Udal Artxiboaren funtzioa Udalari zerbitzu bat prestatzera mugatzen da, Artxiboa Udalak tramitatzen dituen espedienteetarako laguntza edo argibide bihurtzen delarik. Jakina, ikuspegi hau Artxiboak dituen beste funtzioen kaltetan doa, dokumentazioa jaso eta kontserbatu eta, batez ere, gizarteari zerbitzu egokia prestatzearen kaltetan, alegia.

Dudarik gabe, gaurregun gure Artxiboek dituzten arazo gehienak gaurko ikuspegi mugatu honetan datza. Arazo horiek hiru arlotan bereiz ditzakegu:

-Giza-baliabideak: Artxiboetan lana egiten duen pertsonalaren egoera guztiz konplexua da. Nahiz eta

berriz ere salbuespenak aipatu behar, kasu gehienetan gure Artxiboetan ez dago behar hainbat enplegatu eta, askotan, dagoenaren gaitasun ezak edota Artxibo lanaz kanpo beste Udal Bulegoetan lanean aritu behar izateak, egoera hori larriagotu egiten du. Bestalde, lanmaila eta soldata gutxitan izan ohi dira Tekniko bati dagozkionak.

-Diru-baliabideak: Aipatutako ikuspegi mugatu horren ondorioz, artxibo-lanetan oso inbertsio murrizak egiten dira. Gure Artxibo gehienek kokamendu, ekipamendu eta lanerako baldintzak dira egoera tamalgarri horren lekuko.

-Zerbitzuak: Udal Artxiboak, izaera publikodun ondare dokumentala denez, gizartearen zerbitzura egon behar du. Funtzio honi, indarrean dauden xedapen legaletan aldarrikaturik egon arren, muga bortitzak ezartzen zaizkio Udal asko ta askotan, non udal gestiorako tresna hutsetzat hartzen bait da.

Udal Artxiboaren izaera eta funtzioei buruz Udaletako agintarien ikuspegia zabaltzen ez den bitartean, gaurko egoera gainditzea, gure Artxiboetan beharrezkoak diren giza eta diru baliabideak jartzea eta gizarteari zerbitzu eskaintza zabal bat ematea ezinezkotzat jotzen dut.

Gure lurraldeko Udal Artxiboen errealitateari buruzko azterketa sakona egiteak, aipatutako arazo kontzeptual nagusiaz gain -zeinaren ondorioak, esan bezala, Artxiboen giza eta ekonomi baliabide egokirik eza eta zerbitzu mugatuak dira -beste arazo bat ere plazaratzen du, agian bestea baino garrantzi gutxiagokoa dena, baina irtenbidea aurkitzeko Udal Artxiboetako arduradunek izan dezakegu zeresanik. Bakoitzak bere aldetik jardutearen arazoak ari gara. Dinamika hori gure Artxiboetako ezaugarri bat da, eta horrek suposatzen duen koordinaziorik ezak onura ez baizik kaltea dakarkigula begibistan dago.

Gaur egun Udal Artxiboetako arduradunen lana beren Artxiboetara mugatzen da. Gure Artxiboetako jokaera indibidualista honen adibide gisa, errealitate hau aipa genezake: gaurregun gure lurraldeko Artxiboetan Sailkapen eta Ordenamendurako Sistema des-

berdinak aplikatzen dira, orain arte aplikatu diren sistemen jarraipen moduan, edota Artxibariaren gaitasunaren arabera. Orain arte Udal Artxiboen arduradunok ez gara elkarrekintzarako formula bat finkatzeko gai izan, eta hori nahitaezkoa zaigu gure esperientzia nahiz lan-sistemen berri izan nahi badugu, hala nola Fondoen Antolamendurako Taula bakarraz baliatu eta erizpideak bateratu nahi baditugu. Lan aberats eta emankorrak hori eskatzen du.

Laburki bada ere, hauexek lirateke Udal Artxiboetako arazo garrantzitsuenak. Berriz diot, behin-betiko irtenbideak erakunde publikoen eskutan daude, haiek hartu behar bait dituzte egoki eta beharrezkoak diren erabakiak. Nahiz eta hori horrela izan, udal Artxiboen arduradunek, zerikusi handia dugunez gero, nere ustez, gaurtik bertatik funtzionamendurako koordinaziozko dinamika berri bat sortu beharko genuke, gure Artxiboetako zenbait arazo aztertu eta guztion artean konpon ditzagun, hain zuzen ere gerorako utzi gabe berehala konpondu beharrekoak direnak eta erakunde publikoen erabakirik gabe konpon litezkeenak.

Azaltzen ari natzaizuen koordinazio proposamen hau-zeina gauzatzeko Udal Artxibariez osatutako Lantalde batzu osatu beharko lirateke -ez da, noski, asmakizun berri bat, beste hainbat lurraldetako Artxibariek eta gure lurraldean bertan beste arloetako profesionalek praktikan jarri duten zerbaitez baizik. Adibide gisa, tipa ditzagun Madrid Komunitateko Artxibarien Taldearen lan emankorra eta gure lurraldean Udal itzultzaileek eta Euskara Zerbitzuetako Arduradunek urratu duten bidea.

Zeintzu lirateke udal Artxiboen arduradunek eraturtako Lantalde hoiek jorratu beharreko gai nagusiak? Nere ustez, honako hiru hauek:

1.- Elkarlanean oinarrituriko funtzionamendu koordinatua Korporazioen aurrean presio bide bat litzateke (dudarik gabe, bakarka eginikoa baino askoz ere efektibagoa) gure Artxiboetako erreibindikazio nagusienak kontutan hartuak izan daitezen, hala nola:

- Artxiboetan behar haina eta gai diren giza-baliabideak ezartzea.

- Artxibariaren titulazioarekin bat datorren lan-maila onartzea.

- Udal aurrekontuetan Artxiborako portzentaia finkatzea.

- Artxiboa gizarteari irekitzea, zerbitzu eskeintza zabal baten bidez. Esan nahi dena zera da: udal Ar-

txiboari, udal-gestiorako ezezik, ikerketa, herriko historia, irakaskuntza eta abarretarako ere etekina atera behar zaiola.

2.-Fondoen Antolamendurako Taula desberdinak aplikatzen ari direla esan dugu. Nere ustez, Fondoen Antolamendurako Taulari buruz udal Artxiboetako arduradunen artean debate bat egitea derrigorrezkoa eta guztiz beharrezkotzat jotzen dut, erizpideak bateratu eta Artxibo guztietan Taula bakarra eta berdina erabili ahal izateko. Bestalde, batasun honek urte gutxi barru Artxiboetan ere nahitaez egin beharko diren mekanizazio lanak errezatuko lituzke.

Orain arte gure inguruko Artxibo gehienetan Karmelo Etxegaray-ren sistema erabili da, gaur egun ere zenbaitetan erabiltzen delarik. Etxegaray-ren sistema Artxibo Historikoaren beharretarako egokia, baina dokumentazioaren maila ertain eta administratiborako ez dela nahikoa derizkiot. Nere ustez, Madrideko Udal Artxibarien Lantaldeak proposaturiko Fondoen Antolamendurako Taula gaur egun Administrazio Lokalaren dokumentazio eta zerbitzu guztiei modu egoki batean dagokie. Ez naiz esaten ari gure lurraldean Taula hori oso-osorik erabili behar dugunik, baina bai sistema bakarra eta berdina finkatzeko beharrezkoa den Udal Artxiboetako arduradunen debaterako lan-oinarri bezala erabilia izan beharko lukeela.

3.- Artxiboko material eta dokumentazioaren kontrol eta berreskurapenerako bitartekoak bateratu eta arautzea.

Labur-labur, hauxe izan da nere koordinazio proposamena. Txosten honetako lehendabiziko lerroetan aipatzen nuen bezala, berez ez da asmakizun berri bat. Nolanahi ere, udal Artxiboen gaurko egoera, kontutan harturik, eta legezko erabakiak hartzen ez diren bitartean, nire egarria asetutzat emango nuke baldin eta, ideia hauek, Artxiboen funtzionamenduari buruzko hausnarketa egiteko eta elkarrekintzarako bideska bat irekitzeko baliagarri gertatuko balira.

Ez litzateke bidezkoa izango udal Artxiboen arloan azken urte hauetan eman diren aurrerapausoak aipatu gabe txosten hau bukatzea. Zenbait Udalek eginiko Artxibarien kontratazioak, Foru Aldundiak emandako laguntzak eta subentzioak, antolatutako Ihardunaldi, Mintegi eta Ikastaroak, Eusko Ikaskuntzaren barruan eraturiko Artxibo Saila, . . . aurrerapauso txikiak izan arren, aitortu behar da, guzti horri esker Udal Artxiboak berreskuratzeko bidea urratzen ari garela. Funtzionamendurako dinamika koordinatu bat sortzea izango ote da hurrengo urratsa? Nere ustez bai, ezinbestekoa zaigu.